

KOLABORAZIOAK

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI» / Hizkuntzalari eta idazlea

Irailaren 27

BERRIRO ere gogoratu dugu 1975eko irailaren 27 hitz hura. Orain dela 21 urteko afusilaketa hark, zauri latzak arraberritzen ditu Euskal Herrian. Baina gutxiegi pentsarazten du, beharbada.

Euskal Herrian "Txiki" eta Otaegi ETAKo gudarien oroitzapena senditzen da gehienik. FRAPeko militanten afusilaketa ere gogoratzen da. Nola ez! Haiek ere bizia bera eman baitzuten fazismoaren amaiera azkartzeko. Baina bai Espainian bai Euskal Herrian bi mailatan geratu dira bost heriotzak.

"Txiki" eta Otaegi antifrankista izateaz gain, abertzaleak baitziren; eta euskal abertzaletasuna ez baita berdin senditzen Espainian eta Euskal Herrian. Egun hauetaxe berriro ere nabarmen gelditu den bezala.

Españolistek ezin dezakete desberdintasun hori irents. Diferentziazio gako naziotasunari dagokiola.

Francok ongi zekien hau. Eta horregatik afusilatu zituen batera bi abertzale eta hiru espainiar antifrankista. Euskal Herriaren kontrako afusilaketa, espainiar anti-frankismoaren kutsuaz markatu zuen.

Eta jokabide hori konstante bat da gure Kondairan; oraindik ere gure inguruko sasi-jakintsu batzuek ikusi nahi ez badute ere.

Oso oso garrantzitsuak izan dira, honi buruz, Miguel Castellsek EGIN-Irratian irailaren 27ko goizean egindako deklarazioak. "Txiki"ren abokatua zen Castells; eta, hori dela-ta, berak izan zuen azkeneko harremana hiltzera zihoanarekin.

Castellsek azpimarratu duenez, "Txiki"ren azken mezua, bi aldiz errepikatua, hauxe izan zen: «Aberria ala hil!». Eta sozial-inperialismoaren eragina nabarmena zen momentu hartan (oharra nik neuk egiten dut, baina Castellsek ere bai), guztiz adierazgarria da "Txiki"ren azkeneko mezua: bera iraultzailea izanik ere, Aberria-ren izaria nabarmentzeko eskatu zion Castelli.


Hots, egun bakar batzuk lehenago, erreportaje ezin mamitsuagoa ikusi ahal izan dugu TVEren bigarren katean; eta seguru aski teleikusle mordo batek ikusia du nik bezala. Viet-Nam-i buruz.

Bere 82 urteetan oraindik gordin eta enai, Giap Generala mintzatu da Viet-Nam-go gerrateaz. Giap hauxe izan zen Ho-Chi-Minh-en konfiantza gizona arazo militarretarako; eta, beraz, gerrilla abertzalearen buruzagia.

Hots, elkarrizketa horretan Giap Generalak behin eta berriz gogoratu

Diferentziazio gako naziotasunari dagokio

duenez, vietnamdar abertzale komunisten lehenengo helburua, Viet-Nam-en askapen nazionala zen; frantses okupazioari akabera emanez. Oraindik ere gogoan daukat vietnamdar negoziatzaile-taldeak Bruselan, Parisako bidean, eskaini zuen agerrialdia: «Notre premier but est la libération nationale du sol vietnamien; et son unification politique, après expulsion des forces étrangères d'occupation. Le régime politique du futur Viet-Nam Libre et Réunifié, est une affaire à décider par les Viet-Namiens eux-mêmes».



SEMAFORO GORRIA

Xabier AMURIZA

Euskararen barne ezina

ATZO, Euskal Herrian Euskaraz erakundearen kanpaina eta horren oinarri-txostenari ekinez, normalkuntzarako arazo politikoez eta sozialez mintzo ginen. Euskarak baditu, ordea, barne problemak, gutaz beste erantzulerik ez daukatena eta, beraz, beste konpontzailek eduki ez dezaketenak. Oker guztien erua ez dauka diglosiak, ezta Madrilek eta Parisek ere. Honetan euskarak oraindik arrastatzen duen gaitzik handienetako bat aipatu nahi dut. Batzuri agian «gaitza» irudituko ez zaion hau niretzat errakuntza mortala da eta oraindik hortxe jarraitzen dugu. Hitz «kultuen» edo «tekniko» onarpena defendatzen da, baina zenbat hitzetan? Non hasten eta non amaitzen da eremu eskerga hori? Ez dago irizpide argirik. Eta horixe da azaltzera natorrena.

Niretzat irizpide argi bat hauxe izan daiteke: Hizkuntza europarrek altxor komuntzat daukatzen hitzetan, euskarak, «ordain argirik» ez badauka, hitz komuna muzin gabe

onartu behar du. Edo alderantziz esanda, europar hizkuntzek komuntzat daukatzen hitzak euskaraz berrortzen hastea kamuskeria suizida bat da, euskarak ordain argi bat ez badauka. Ez ordain gutxi gorabeherako bat, zehatza eta dudagabea baizik. Honetan, agertu diren azken bi hiztegiak (Elhuyar Hiztegia eta Hiru Mila Hiztegia) oso urrun ikusten ditut oraindik. Bai batak eta bai besteak saihebideta hartzen dute, nire ustez euskarak duda gabe beregandua behar lukeen hitz komun eta garrantzitsu ugartan.

Ez uste ehunka batzuk hitz direnik. Milaka dira, gure inguruko

hizkuntzen kontzeptu multzo zentrala osatzen dutenak. Ingeleseko Collins hiztegiak 610 orrialde dauka. Gaztelaniazko Casaresenak mardulagoa dirudi. Ba, hain potoloak ez diren hiztegi horietatik egin dudan kalkulu batek hamabost milatik gorako hitz sorta komuna ematen dit. Hona, adibidez, ingelesez hartutako zerrendatxo bat: invent, intervention, invalid, intermittent, irritate, mediokre, native, negligence, obscene, observe, opportune, penetrate, perceive, persistent, possession, precedent, prevail, prevalent, reciprocal, redeem, "redemption, relate, remit, remittent, represent, repudiate, res-

Etta, jakina, estrategia abertzale horrek ondorio osok zituen taktiken eta aliantzen alorrean. Ho-Chi-Minh-ek, adibidez, ez zuen inoiz proposatu klase-fronte frantses-vietnamdar bat, burgesiaren aurka; Maoren bidetik, Fronte Abertzale bat baizik. Eta Giap Generalak berriro gogoratu digu telebistan.

Hitz batez: Viet Nam-go borroka, nazionala izan zen erabat. Ez batera progre eta abstraktoa. Ho-Chi-Minh, "Txiki" bezala, ezkerretarra zen, sozialista erradikala zen; baina vietnamdar abertzalea zen. Orduan bertan Joxe Azurmendik zehazki frogatu zuen bezala.

Hala ere, badirudi oraindik ere gure inguruko batzuek, 20 eta 30 urte pasa ondoren ere, ez dutela amore eman nahi.

Etsaiak, jakina, betiko eskemari eusten dio: hemen nazio-arazorik ez balego bezala jokatzea. Alegia: arazoaren gako bera izkutatuz.

Zertara etorri da *violentos/democratas* erdibiketa hori, gure arazoaren izari nazionala izkutatuzera baizik? Matrikula zaharra: naziotasuna «ahaztea»: «nosotros somos demócratas, vosotros sois violentos»...

Bide beretik: *hay que acabar con la «violencia callejera»*... Baina galdera berehala dator: zergatik ez dago «violencia callejera»-rik Bada-jozen eta Teruelen? Zergatik dago askoz ere «insumiso» gehiago Nafarroan, Albaceten baino?

Badirudi gako euskal nazio arazoaren izaria dela. Baina hau ez da inoiz agertzen. Eskolaren alorrean sartu diguten zirian bezala: *escuela pública/escuela privada*...

Eta guk oraindik garbi ikusi ezin! Gu «los del Norte» baikara, eta bakangetara «Levante»-ra joaten baikara, omen... Beti ere azalpen abstraktoak nahiago etsaiak. Jakina.

Kurdiarrak «mendiakotako turkiarrak» dira Ankaran; mazedoniarrek, «Mendebaldeko bulgariarrak» Sofian. Baina "Txiki" «Aberria ala hil» oihu eginez abiatu zen hormarantz.

Noiz hori guztia behin eta beti-rako ulertuko?

cind, reside, resident, restrict, restriction, sequestrate, submarin, supplement, vanity, verity, defect, deference, exhibit, horrible, horror.

Hitz hauek komunak dira ingelesez, alemanez, frantsesez eta gaztelaniaz, alegia, bai hizkuntza latin-kumetan, bai anglogermanoetan. Gorago aipaturiko gure bi euskal hiztegiek hauetako bat ere ez dute jasotzen. Milaka hitzeko altxor komun horren aurrean, euskaraz oraindik daramagun joera ikusirik, ezin dut ekidin zerbituetan oker gabiltzan susmoa, jokoaz kanpoko sentazioa. Zertan ari gara europar hizkuntza indartsuenek hain lasai konpartitzen duten unibertso kontzeptual guztia euskaraz bezalako arrago txiki eta ia agoniko batean berrortu nahian, hizkuntza guztia deskolokatu? Bihar alderantzizko gaitzik ekingo diot, alegia, zenbat euskal hitz edo «ordain argi» gaidu dugun eta gaitzen ari garen, irizpide nazional minimo bat ez edukitzeagatik.